

Irakurketa sustatzeko kanpaina uztailaren 21 era arte luzatu da

Topagunea eta Euskal Herriko 14 herritako euskera elkarte eta liburutegien eskutik.

BILBO. Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa jarri zuen abian joan den apirilaren 23an, Liburuaren Egunarekin bat eginez. Hego Euskal Herriko 14 herritako euskara elkarte, liburutegi eta liburu-dendekin elkarlanean antolatutako kanpainak irakurketa susta-tzea du helburu nagusitzat, eta, hasiera batean behintzat, joan den ekainaren 23an amaitzekoa zen.

Izan ere, uda parte izaten da irakurtzeko denbora gehien izaten dugun sasoa, eta horregatik aurreikusi zen liburuak erdi prezioan ere oparitzeko aukera ematen duen kanpaina uda hasi arte mantentzea. Hala ere, uda hurbildu ahala ugarituz joan dira kanpainan parte hartzeko eskariak, eta hori ikusita, egitasmoaren iraupena hilabetez luzatzea erabaki dute antolatzaileek, hots, uztailaren 21 arte.

Egitasmoaren funtzionamendua sinplea da: parte hartzen duten herrietako liburutegietan, euskarazko 100 liburu dago aukeran, kanpainarako beren-beregi jarritako apalategi batean. Liburu horietatik, 90 berdinak dira herri guztietan, eta beste 10, berriz, herrian bertan aukeratutakoak.

90 liburuen multzoaren aukeraketa Patxi Zubizarreta idazleak egin du, hainbat irizpideren arabera (adin-tarte guztientzako liburuak egotea, genero literario ezberdinak, genero ikuspegia, nobedadeak eta klasikoak). Egitasmoan parte hartu nahi dutenek, 100 liburu horietako bat aukeratu, maileguan hartu eta irakurtzeko aukera dute. Liburua itzulitakoan, liburuaren inguruko iritzia jasotzeko fitxa sinple bat bete behar da. Fitxa betetakoan, irakurleak deskontu txartela jasotzen du liburua besteren bati oparitzeko.

Txartel horrekin, irakurri berri duen liburua %25eko deskontuarekin erosi ahal da egitasmoan parte hartzen duten liburu dendetan. Herriko euskara elkarteak kideek, gainera, are deskontu handiagoa dute. Liburua erositakoan, lagunaren helbidea uzten da dendan bertan, eta euskara elkarteak helaraziko dio hartzaileari.

Guztira, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 14 herritako 13 euskara elkarte hartzen dute parte kanpainan. Bizkaian, Bai Esan (Santurtzi), Berbots (Erandio), Asapala (Mahatserria), Ganoraz (Igorre), Berbaro (Durango) eta Euskal Birusa (Ermua) elkarateek; Gipuzkoan, Maxixatzen (Azkoitia), Noaua (Usurbil), Goibeko (Elgeta), Jardun (Bergara) eta Zin-tzo Mintzo (Urretxu-Zumarraga) elkarateek; eta Nafarroan, Bierrik-Kima (Altsasu) eta Aizpea-Pikuxar (Irurtzun) elkarateek.